

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON



## Lehengo harenez

Nafarroako euskal hizkeretako  
lexia konposatuak



# Lehengo harenez

Nafarroako euskal hizkeretako lexia konposatuak

Jose Luis Erdozia Mauleon

Saio eta Testigantza, 239

978-84-9172-236-6

2021. urtea - 288 or. - 17x24 cm

22,00 €

Liburu honetan lexema soila baino osagai gehiago duten lexiko mailako zenbait burutzerekin (lokuzio, esamolde edo esapide eta aditz perifrasiak) eginen duzu topo. Hiztegietan sarrera nagusi edo azpisarrera moduan, normalean, agertzen ez direnak dituzu eta, horiek guztiak, bederatziehundik gora (bederatziehun eta hamasei okertu ez bagara), Nafarroako euskal hizkeren eremuetako hiztunek aspaldian baliatu izan dituztenak eta egun oraindik ere horietako zenbaitzuek baliatzen dituztenak dira.

Hiztunek, noizbait, inguru semantiko zehatz batean sortu zituzten hitz soila bera baino gehiago diren hauek eta, ondoren, haien erabilera sendotu zuten egunerokotasunean. Eguneroko elkarrizketetako gatza eta piperra izan dira eta dira gaur egun ere, euskara komunikazio hizkuntza dutenen artean Sakanan, Zaraitzun, Luzaiden, Artzibarren, Erroibarren, Esteribarren, Ultzaman, Basaburuan, Imotzen, Leitzaldean, Larraunen, Bortzirietan, Sunbillan, Malerrekan, Bertizaranan, Aezkoan, Baztanen, Zugarramurdi, Urdazubin eta Erronkaribarren gehienbat, baina baita hauen aldameneko eskualde batzuetan ere.



**J. L. Erdozia Mauleon**  
(Etxarri Aranatz, 1956)

Unibertsitate-ikasketak burutu zituen EHU: Geografia eta Historiako lizentzia (1981); Pedagogi-gaitasun agiria (PEI-CAP, 1982); Ikastetxeen antolamendua, kudeaketa eta zuzendaritza graduondoa (1992); eta, azkenik, Euskal Filologiako doktoregoa (2000). Irakaskuntza ertainetako irakasle lanbidean jardun du 35 urtez.

Bestalde, euskaltzain urgazle izendatu zuten 2006an eta urte bat lehenagotik da Euskaltzaindiko Euskalkien Lantaldeko kidea.

Aldizkari espezializatuetan (FLV, Euskera, ASJU, Principe de Viana, Cuadernos de Etnología y Etnografía) hogeita bost artikulu karrikaratu ditu eta sei liburu argitaratu dagoeneko, azken hauek guztiak Sakanako euskara eta toponimiari buruzkoak: *Sakana erdialdeko euskara*. (2001, Doktore tesia), *Sakanako hiztegi dialektologikoa*. (2004), *Sakana erdialdeko bitxikeriak: esaerak eta beste*. (2004), *Altsasuko euskara*. (2006), *Sakanako hizkeren arabera idazkera batua*. (2007), *Etxarri Aranatzko leku-izenak herrigune historikotik kanpo. Egungo toponimia ofiziala* (2019).

